

INFORMAZIO OHARRA

Adimen artifiziala: arriskuen gainera, aukerak

Eusko Ikaskuntzak eta Jakiundek antolatu duten aurkezpen eta eztabaida saioan Adimen Artifiziala izan dute hizpide, RIEV-Revista Internacional de los Estudios Vascos aldizkariaren 67.2 zenbakiaren aurkezpenean

Gasteiz, 2023ko azaroak 20. Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultur Etxean “**Adimen artifiziala gaur: arriskuak, erronkak eta aukerak**” aurkezpena izan da gaur, Eusko Ikaskuntzak eta Jakiundek antolatuta, 2021ean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan kokatzen den RIEV-Revista Internacional de los Estudios Vascos [aldizkariaren 67.2](#) zenbakiaren aurkezpenari lotuta.

Saioari hasiera eman diote **Asier Etxenikek** Eusko Ikaskuntzako Arabako ordezkariak eta **Ignacio Arganda Carrerasek**, 67.2 zenbakiaren editorea eta Jakiundeko kideak. Erakunde bien arteko elkarlana kokatu dute, 2021ean abiatu zena eta ahalbidetu duena Zientzia, Arte eta Letren Akademia RIEVen kolaboratzaile egonkor gisa sartzea, eta bere gain hartzea urteko bi liburuetako baten edizio osoa. Asier Etxenikek Eusko Ikaskuntzaren konpromisoa eta zeregina azaldu du “ez bakarrik maila akademikoan, egitaritzan ere, elkarlana oinarri duela”. Arganda Carrerasek ekoiztutako 67.2 zenbakiaren inguruko xehetasunak eman ditu: bederatzi artikulu, zeinetan “Adimen Artifizialaren garapenaren eta eraginaren hainbat alderdi jorratzen dira, bai eta ikerketak alor horretan gaur egun duen egoerari buruz eta etorkizunean izan ditzakeen ondorioei buruz ere”.

Jarraian Nafarroako Unibertsitate Publikoko Konputazio Zientzien eta Adimen Artifizialeko katedradun eta Jakiundeko kidea den **Humberto Bustince**, eta UPV/EHUko Informatikako katedradun eta Hizkuntza Prozesamenduaren eta Adimen Artifizialaren arloetako ikerketan Euskal Herrian aitzindari den **Arantza Díaz de Ilarraza** kidearen arteko eztabaida izan da. Euren solasean AAk gure eguneroko bizitzan nola eragiten digun eta zer desabantailak dituen aztertu dituzte, giza adimenaren eta adimen artifizialaren arteko desberdintasun nagusiak azaldu, AAren garapen eta hedapena landu eta gizarte-erronka konplexuetan zer ekarpen izan ditzaketen mahaigaineratu dituzte. Euren arteko solas osoa Eusko Ikaskuntzak zabalduko du hurrengo egunetan bere Solasaldiak atalean (www.eusko-ikaskuntza.eus).

Eguna ixteko, bertaratukoekin parte hartzea zuzena izan da galdera-erantzunen bitartez.

NOTA INFORMATIVA

Inteligencia Artificial: oportunidades por encima de los riesgos

Eusko Ikaskuntza y Jakiunde organizan una sesión de presentación y debate sobre Inteligencia Artificial en la presentación del número 67.2 de la RIEV- Revista Internacional de los Estudios Vascos

Vitoria-Gasteiz, 20 de noviembre de 2023. La Casa de Cultura Ignacio Aldecoa de Vitoria-Gasteiz ha acogido hoy la presentación “**La inteligencia artificial hoy: riesgos, retos y oportunidades**”. Organizada por Eusko Ikaskuntza y Jakiunde, se ha presentado el número 67.2 de la [revista RIEV-Revista Internacional de los Estudios Vascos](#), enmarcado en el convenio firmado en 2021.

Asier Etxenike, representante por Álava de Eusko Ikaskuntza e **Ignacio Arganda Carreras**, editor del número 67.2 y miembro de Jakiunde, han dado comienzo a la sesión. Han situado la colaboración entre ambas entidades, la cual ha permitido la incorporación de la Academia de Ciencias, Artes y Letras como entidad colaboradora estable de la RIEV, asumiendo la edición completa de uno de los dos libros del año. Asier Etxenike ha explicado el compromiso y el papel de Eusko Ikaskuntza “no sólo a nivel académico, sino también en la práctica, sobre la base de la colaboración”. Arganda Carreras ha detallado los pormenores del número 67.2: nueve artículos en los que “se abordan diversos aspectos del desarrollo e impacto de la Inteligencia Artificial, así como la situación actual de la investigación en este campo y sus posibles consecuencias futuras”.

A continuación, ha tenido lugar el debate entre el catedrático de Ciencias de la Computación e Inteligencia Artificial de la Universidad Pública de Navarra y miembro de Jakiunde, **Humberto Bustince**, y la catedrática de Informática de la UPV/EHU y pionera en Euskal Herria en investigación sobre las áreas de Procesamiento del Lenguaje e Inteligencia Artificial, **Arantza Díaz de Ilarraza**. En su conversación han analizado cómo nos afecta y qué desventajas tiene la IA en nuestra vida cotidiana, han explicado las principales diferencias entre la inteligencia humana y la artificial, han trabajado en el desarrollo y la difusión de la IA y han planteado sus posibles aportaciones a retos sociales complejos. En las próximas semanas, Eusko Ikaskuntza pondrá a disposición de quienes tengan interés el debate integro en su apartado Solasaldiak (www.eusko-ikaskuntza.eus).

La jornada ha finalizado con la participación de las y los asistentes en el turno de preguntas y respuestas.